



## **Aurretizko genero eraginaren txostena**

**Foru Dekretu proiektua, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzekoa**

### **1. Sarrera**

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapide-tzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

## **Informe de evaluación previa de impacto de genero**

**Proyecto de Decreto Foral por el que se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, y el Reglamento que regula las obligaciones de facturación**

### **1. Introducción**

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.



Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

## 2. Arau aldaketak

Proposatutako prozeduraren xedea da foru dekretu bat onartzea, honakoak aldatzeko:

- zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua (47/2013 Foru Dekretua)

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Modificaciones normativas

El procedimiento propuesto tiene por objeto aprobar un Decreto Foral que modifique:

- el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales (Decreto Foral 47/2013)



- fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua (8/2013 Foru Dekretua).

**Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduari dagokionez**

- beharrezkoa da arautzea subjektu pasibo batzuek dituzten aukera berriak azken kontsumitzaileei bide elektronikoz ematen dizkieten zerbitzuak eta telekomunikazio, irrati eta telebistakoak beti zergapetu daitezkeen kontsumoko estatu kidean, nahiz eta zerbitzu emaileak urte naturalean urteko 10.000 euroko kopurua ez gainditu erkidegoaren eremuan.
- proposatzen da BEZaren erregistro liburuak elektronikoki eramateko aukerari dagokion epea arautzea BEZaren Erregelamenduko 68 bis artikuluan ezarritako modu bertsuan.

- el Reglamento que regula las obligaciones de facturación (Decreto Foral 8/2013).

En lo que se refiere al **Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales:**

- se hace necesario regular las nuevas opciones que tienen determinados sujetos pasivos para que sus servicios prestados por vía electrónica, de telecomunicaciones y radiodifusión y televisión, efectuados a consumidores finales tributen siempre en el Estado miembro de consumo aunque el prestador de estos servicios no haya superado los 10.000 euros anuales en el ámbito comunitario durante el año natural.
- se propone regular el plazo de la opción para la llevanza electrónica de los libros registro del IVA en términos similares a los establecidos en el artículo 68 bis del Reglamento del IVA.



- harpidetza eskubideak eskualdatzeko eragiketei buruzko informazioa Zerga Administrazioari bikoiztuta emateak kudeaketan eragin ditzakeen arazoak saihestearren, proposatzen da erregelamenduan aldaketa bat sartzea harpidetza eskubideekin egiten diren eragiketen informazio hornidura guztia entitate gordailuzainean zentralizatzeko. Hortaz, eragiketan esku hartzen duen finantza bitartekariak edo fedemaile publikoak Espainian gordailuzainik ez dagoenean bakarrik izango du informazioa emateko betebeharra.
- con el objeto de evitar problemas de gestión derivados de duplicidad en la aportación de la información a la Administración tributaria sobre operaciones de transmisión de derechos de suscripción, se propone introducir una modificación en el reglamento para centralizar todo el suministro informativo sobre operaciones con derechos de suscripción en la entidad depositaria, de forma que sólo en ausencia de depositario en España, surgirá la obligación de informar para el intermediario financiero o fedatario público que intervenga en la operación.

**Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduari** dagokionez:

- Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 Zuzentarauaren transposizioa dela-eta, aldaketak sartzen dira fakturazio arloan aplikagarria den araudiaren erregeletan. Horrela, 2019ko

En lo que se refiere al **Reglamento que regula las obligaciones de facturación:**

- como consecuencia de la transposición de la Directiva 2017/2455 del Consejo, de 5 de diciembre de 2017, se modifican las reglas referentes a la normativa aplicable en materia de



urtarrilaren 1etik aurrera, telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuei eta bide elektronikoz egindakoei aplikagarri zaizkien araubide berezietan dauden subjektu pasiboek identifikazioko estatu kideko araudia aplikatu beharko dute.

- eguneratu egiten da zergan salbuetsita daudenetatik zer eragiketengatik izango den faktura egiteko obligazioa, eta ezartzen da ezen, aseguru eta kreditu entitateak ez ezik, beste finantza entitate batzuk ere egongo direla faktura egiteko betebeharretik salbuetsita balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsitako aseguru eta finantza eragiketak egiten dituztenean. Horrez gainera, proposatzen da Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak faktura egiteko betebeharretik salbuetsi ahal izatea, interesdunak aurrez eskatuta, salbuespena justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

facturación. Así, desde 1 de enero de 2019, la normativa aplicable será la normativa del Estado miembro de identificación para los sujetos pasivos acogidos a los regímenes especiales aplicables a los servicios de telecomunicaciones, de radiodifusión o de televisión y a los prestados por vía electrónica.

- se actualiza la relación de las operaciones exentas del impuesto por las que será obligatoria la expedición de factura y se excepciona, como ya venía sucediendo para entidades aseguradoras y de crédito, a otras entidades financieras de la obligación de expedir facturas por las operaciones de seguros y financieras exentas del impuesto sobre el valor añadido. Así mismo, se propone que la Dirección General de Hacienda, previa solicitud del interesado, pueda eximir de la obligación de expedir factura, cuando existan razones que lo justifiquen.



- erregelamendu honen hirugarren xedapen gehigarrian jasotzen den fakturazio prozedura berezia bidaia agentzien araubide bereziari lotutako bidaia zerbitzuei zabaltzea proposatzen da.
- se propone ampliar a los servicios de viajes sujetos al régimen especial de las agencias de viajes el procedimiento especial de facturación previsto en la disposición adicional tercera de este reglamento.

### **3. Genero eragina**

#### **3.1 Genero egokitasuna**

Proiektu honen helburu nagusia da bi erregelamendu aldatzea: batetik, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua, eta, bestetik, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua.

Proiektu honetan proposatutako neurriak izaera teknikokoak dira, eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk betetzeari buruzkoak dira (Enpresari,

### **3. Impacto de género**

#### **3.1 Pertinencia de género**

Este proyecto tiene por objeto principal modificar el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, y el Reglamento que regula las obligaciones de facturación, aprobado por el Decreto Foral 8/2013, de 26 de febrero.

Las modificaciones propuestas en este proyecto son de carácter técnico, hacen referencia al cumplimiento de determinadas



Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan alta ematearen eragina; Errolda horretan jasotako datuen aldaketa eta bere eragina; BEZeko erregistro liburuak elektronikoki eramatea eta bidaltzea; aktibo finantzarioekin egindako zenbait eragiketari buruz informatzeko betebeharra); eta baita fakturatzeko obligazio batzuei buruzkoa ere (fakturak egiteko obligazioa, fakturak egiteko obligazioaren salbuespenak, zerbitzu jakin batzuk fakturatzeko bidaia agentziak esku hartzen dutenean).

Zergak eraginkortasunez aplikatuko badira, ezinbestekoa da zerga obligazio formalak eta fakturatzeko obligazioak betetzea. Izan ere, horrela Zerga Administrazioak lortzen ditu zergak orokortasun, berdintasun eta ekitate printzipioei jarraituz aplikatzeko behar diren tresnak eta informazioa. Informazio hori eskuratu ezean, ezinezkoa litzateke zerga obligazioak betetzen direla kontrolatzea.

obligaciones tributarias formales (efectos que tiene darse de alta en el Censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores; modificación de los datos recogidos en ese Censo y sus efectos; Llevanza electrónica de los libros registros del IVA y su remisión; obligaciones de información sobre determinadas operaciones con activos financieros) y a determinadas obligaciones de facturación (obligaciones de expedir factura, excepciones a esa obligación de expedir factura, expedición de facturas en determinadas prestaciones de servicio en las que intervienen agencias de viaje).

El cumplimiento de las obligaciones tributarias formales y las obligaciones de facturación resulta imprescindible para una eficaz aplicación de los tributos, pues provee a la Administración tributaria de la información y herramientas necesarias para una aplicación de los tributos con base en los principios de generalidad, igualdad y equidad. Sin dicha información resultaría



Beraz, aldaketa horiek antolamendu juridikoari araugintzako zehaztasun handiagoa emango diote, betiere zerga arloko jarduketari eraginkortasun handia eskaintze aldera eta, azken finean, zerga sistema orokorrak hobeto funtzionatze aldera.

Funtsean betebeharrak formal eta fakturazio obligazioei buruzko aldaketak dira, ez diote emakumeek eta gizonek gizartean duten estatusari edo berdintasuna lortzeko aukerari eragiten, eta ez dute gizartean eragina izango duen araurik sartzen. Eta nola ez dutenez eragiten baliabideak eskuratzeko aukeran, ondorioztatzen da ez dela egokia arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Halere, eta

imposible el control del cumplimiento de las obligaciones tributarias.

Por tanto, las modificaciones propuestas dotarán al ordenamiento jurídico de una mayor precisión normativa, que provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Se trata, eminentemente, de modificaciones sobre obligaciones formales y de facturación que no afectan a la situación ni a la posición social ocupada por mujeres y hombres, ni afectan al logro de la igualdad, ni introducen ninguna regulación con incidencia social. Y dado que no inciden en el acceso a los recursos, se determina que no es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si





segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concerto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2019ko otsailaren 8a

San Sebastián, a 8 de febrero de 2019

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**  
**AZTERLANETAKO ATALBURUA / JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**